
Eskola Erakuntza eta Hezkuntza sistema

2001-02. Ikasturtea – 3. Ikasmaila

Eskola erakuntzaz ikuspegi sistemikoa




KAST eta ROSENZWEIG (1979) egileen eredutik moldatutako eskema (BORREL (1989, 85):

Hezkuntza Estatu (eta nazioa?), Kapitala eta Gizarte zibilaren artean

Hiru artikuluak	J. HABERMAS	J. BALLESTEROS	P. IZTUETA
Atal ekonomikoa	Kapitalismondoa	Mundu-ekonomia	Naziozgaindiko izaera
Atal politikoa	Taiuketa politikoa	Modernismo politikoa	Estatu-boterea
Atal kulturala	Krisialdi kulturala	Kultura kontsumo lez	Teknologia eta jakintza
Ondorioak	Kapitalismoaren kontraesana	Problema etikoak eta ez teknikoak	Estatu-botereak jokatzen duen kontrol-zeregina
Hezkuntza arloa	Aberastasunaren banaketa injustoa eta legitimazio kulturalaren premia	Dekadentzia, ala erresis-tentziari dagozkion Baloreak (bakea, Ekologia, elkarkidetza)	Eredu alternatiboa gizar-tearen eta hezkuntzaren antolakuntza-mailan Norbanakoa←→Gizartea

R. DALEren eskema: *La política educativa y Estado, capital y sociedad civil,...*



Estatuaz, WEBERren definizioa
- Estatuaren hezkuntza atribuzioak. *LOGSE.*
- Komunitateen hezkuntza atribuzioak. *EEPL.*

MAASTRICHT: 2 *helburu nagusi* eta jakintza.
MENDIZABAL: *Globalizazioa-Euskal Herria*

A. CORTINA: *La sociedad civil*
IEPALA: *Alternativas de Río '92*

Hezkuntzaren Soziologiaren ikuspuntutik

LERENA, ESCUDERO, SAEZ CARRERAS: **Hezkuntzaz hiru paradigma**

	HUMANISTA KULTURALISTA	**KRITIKO DIALEKTIKOA**	**POSITIBISTA TEKNOLOGIKOA**
HABERMAS: *Conocimiento e interés*:	Interes Praktikoa	Interes Askatzailea	Interes teknologikoa

ESKOLA ERAKUNTZA eta HEZKUNTZA-SISTEMA

PAULO
IZTUETA
ARMENDARIZ

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
ETA BOTEREA
EUSKAL HERRIAN

IZTUETA P. (2000): *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian.* Utriusque Vasconiae. Donostia.

Sarrera: Industri gizartetik gizarte informatikorako jauzia.
XXI. mendea:
- XX. mendea: industriagintzaren inguruan garatua, eta zutabe politikoa, estatu-boterea.
- Estatuek, ohiko menerapen esparrua murriztua dauka, eta globalizazio ekonomiko eta kulturalak gero eta interdependenteagoak egin ditu Estatuen arteko harremanak. Beraz, independentzia eta interdependentziaren arteko gogoetak planteatzea dagokigu.

- **Egungo aldaketak**: ezagutza esparrua hedatu, ekonomiak duen naziozgaindiko izaera, teknologiaren abiada. Ondorio kontrajarriak: informazio uholdea, kontsumoa, ertzapena.
- Iraultza teknologikoa informatika burutua. Migrazio-mugimendu berriak eta erasoak.
- "Jakintza" da produkzio-baliabide berria. Ezagutza tekonologiko informatikoa.
- Gizarte kapitalistak neoliberalismoa bultzatu du. Eredu alternatibo berria diseinatzea.

- Ilustrazioaz geroztik sortutako **estatu-aparatuak**, bera eta gizanabakoaren arteko egitura guztiak (indarrean zeuden partikularismo polietniko guztiak) ezabatu zituen, lau elementuz baliaturik: populazio osoaren asimilazioa, talde desberdinekiko bereizkeria, zentralizatze-politika berdintzailea eta garaiko metodo eta teknika zientifikoak aplikatuz. Eta baliabide nagusienetako bat hizkuntza homogeneotasuna izan zen. Hor oinarritzen da Estatuaren elebakartasuna, eta bere ordaina: zapalkuntza sistematikoa.

- **Euskal gizarteak dituen arazoak** anitzak dira eta elkarreragiten politika, hezkuntza eta hizkuntzarekin gurutzatuak daude. Eta subjektuarteko harremanak, hauek libreenak izanik ere, gizarte-egituren barnean gauzatzen dira, eta beraz, gizarte-egituren eta subjektuarteko elkarrekintzen prozesua ezagutu beharra dago.
- Jakintza ez da neutroa; Estatuak ezagutza teknikoa kontrolatzen du. Teoria eza dago klase, hezkuntza, hizkuntza (nazioa) eta botereaz. Zenbait ekarpen argigarri bezain murritzak: egungo joera instituzionalizatutik, eta ez herri-mugimenduen alternatibak.

- Hizkuntza arazoa fenomeno soziala, nazio-arazoari lotua. Hizkuntzaren inguruan, klasetasuna, herritasuna eta boterea dialektikoki gurutzatuak daude, eta eragina dute Estaturik ez duen gurea bezelako herri bateko hezkuntza-sisteman. Euskal Herriak eskuartean daraman **nazio-eraikuntzaren** proiektu orokorrean, zutabe nagusitzat daukagu euskal hezkuntza nazionalaren burutzea, eta honek, ezinbestez, estatu-arazoarena ere planteatzea inplikatzen du.

- Estatuaren elebakartasuna, uniformizazio objektiboa eta ondorengo gatazkak. Estatu menperatzaileak ez du onartzen errebindikazio independentistarik (demokrazian bidezkoa dena), funtsean arazo linguistiko-pedagokikoak direnak, bere herritasun-kontzientziaz jabetuak dauden nazio menperatuen kasua, arazo politiko bihurtzen dira.
- Beraz, hizkuntza zein hezkuntza arazoak, estatu-botere gaiaz lotzen dira, berau elementu erabakitzaile baita. Azken saiakerak honetaz dihardu: hezkuntza-sistema nazionala eraikitzeko estatu-boterearen beharraz, botereaz jabetzeko **eskubideen subjektu den herriari erabaki-hitza** emateaz.

emon ta zabal zazu
universidad del país vasco
euskal herriko unibertsitatea

DEPARTAMENTO DE DIDACTICA Y ORGANIZACION ESCOLAR
DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA SAILA

ESKOLA ERAKUNTZA. 3. Ikasmaila

(Lehen hausnarketa ariketa)

P. Iztueta, J. Habermas eta J. Ballesteros egileen artikuluak irakurritzat ematen dira. Egindako laburpen eta eskemen arabera, artikuluetan agertzen diren ideiez, lehenik pertsonalki hausnartzea, eta ondoren, taldean zeuen ideion trukaketa eginez, horietan sakondu eta ezagutzaren berreraikuntzan parte har dezazuen lortu nahi da.

I. Pertsonalki erantzuteko

1. Idatz itzazu, hiru artikulu hauetan gehien gustatu zaizkizun hiruzpalau ideia edo esaldi.

2. Egile horiekin ados ez zauden hiruzpalau ideia edo esaldi.

3. Bila eta idatz itzazu ondoko hitzen definizioa: modernitatea, postmodernitatea, erresistentzia, legitimazioa, boterea, etika, justizia, elkarkidetza (solidaridad), biolentzia, estatua, nazioa, etnia, funtzionalismoa,... Besterik?

II. Taldean (3-4 kide) eztabaidatzeko arazoak. Behin, beste kideen iritziak plazaratu ondoren, hurrengo gaien inguruan eztabaida ezazue.

4. Taldeko beste kideen erantzunik garrantzitsuenak:

1. Gaizki iruditzen zaigu esku pribatuetan egotea gutxienak diren aberatsasu-nak
2. Pertsonak bakoitzak dituen beharrak begiratzen ditu eta ez besteengan "Gandiagoa"
3. Kultura eta artea Kontsumorako produktuak bihurtu dira

5. Taldean agertu den (zeuen arteko, zein egileen ideiekiko) kidetasun eta dibergentzia maila.

→ Lehen hezkuntza sisteman hartzen ziren erabaki eta ideien kontra zegoen, gizarte mekanizatua iruditzen zelako, eta gaur aldiz sist. horren legitimatzaile bihurtu da. Honen ondorioz, arazo moralak etikoak bihurtu dira. Gaur egungo gizartean kontraesanik handiena munduan dago, denerak diren aberastasunak batzuk bakarrik lortzen dituztelako. Nola legitima daiteke moralki banaketa injustu hau???

6. Zeintzu dira hiru egileak bat datozen gizartearekiko hurbilketaren planteamendua?

7. Zein eritzi duzue, Iztuetaren ondoko esaldi honetaz?: "...aldaketa guzti hauen ondorioz, arazo berriak sortu direla eta honek eredu alternatibo baten profila diseinatzea eskatzen duela gizartearen eta hezkuntzaren antolakuntza-mailan" (~~82.~~ orr.) 14

8. Nola planteatzen da taldean, Habermasen esaldi hau?: "cómo distribuir de forma injusta y, sin embargo, legítima la riqueza socialmente producida" (McCarthy, 414). ←

9. Zein da taldeak duen jarrera, Ballesterosek planteatzen duen postmodernismoaren bigarren erantzunaz, erresistentziarena? (13. orrialdeko E puntua).

Erresistentzia dekadeismoaren kontrako pentsamendua da. Dekadentismoak; irrazionalitatean eta komunikazio faltan oinarritzen den bitartean, erresistentzia; arrazionalitatean, demokrazian eta aurrerakuntzan oinarritzen da. → A: (Gizabanakoaren askatasunaren ondorioz sortua, Aurrerakuntzak uste du, gaur egun ~~ematen~~ ~~diten~~ arazoak ez direla teknikoak, etikoak baizik). ↳ A (Gizabanakoaren premiei erantzuten saiatzen da). ↳ D: (Pertsonen arteko errespetoa bilatzen saiatzen da).

10. Zein ondorio (konklusio) ateratzen du taldeak artikulu hauen irakurketa eta eztabaida burutu eta gero?

III – Talde bakoitzak idatziz entregatzeko (aparteko orrian):

0. Ikastaldea, lanaren izenburua eta taldeko partaideak.
1. Taldean ados etorritako ideien zerrenda.
2. Taldeko partaideen artean agerturiko kontrako ideiak.
3. Sakontzea gustatuko litzaizuekeen gaiarik?
4. Besterik.

Entregatzeko


Oharra: azken ebaluazioa burutzeko, gorde ezazue taldeko lanaren kopia bat.

04-10-01

HEZKUNTZA LEGISLAZIOA, ESKOLA ERAKUNTZA ETA HEZKUNTZA SISTEMA.

Sarrera sistemikoa.

Kast eta Rosenzweig egileen eskeman oinarrituz, (Borrell 1989, 85) eta moldatuz, gure asignatura ulertzeko ondoko eredu sistemiko honetaz balia gaitezke:



Gizarte modernoak duen konplexutasuna eta erakundeetako aldaketak ulertzeko eta kontrolatzeko, erakuntza-ezagumenduak sortu dira. Gaurko gizartea, erakundez, asoziazioz edo organizazioz osotutako gizartea da. Eskola -erakuntza fenomenoa ez da gizarte antolatu honen atal edo zati bat baino.

Gure asignatura, *Eskola Erakuntza, Hezkuntza Legislazioa eta Hezkuntza Sistema* deitua, gizarte jakin baten integratzen den eskolaren errealitate konplexua ezagutzeko hurbilketa edo tresna kontzeptuala da. Hezkuntzaren konplexutasuna bere osotasunean ezin antzeman daitekeenez, ahalik eta ondoen aztertzeko, goiko eskema erreferentzial hori erabiliko dugu.

ERAKUNTZA INGURUNEA.

Edozein ikastegi gizarte jakin batez inguraturik agertzen zaigu, beronen eragina handia delarik. Gure kasuan, Euskal Herria, beronen historia, kultura, gatazka eta egitasmo multzoak eragin ezin zuzenago du egungo eskola errealitatean. Gizartea eta eskolaren arteko erlazioa eta harremanak bi aldagai hauen bidez azter genitzake:

- Aldagai burokratikoa.

Eskola Erakuntza Hezkuntza Administrazioaren dependentziapean dago. Aldagai honen bidez, ikastegiek bete behar dute Administraziotik arautzen den legeria osoa. Hezkuntza arautegian ondoko gaiak ikusten dira: Estatu eta Komunitate Autonomoen arteko irakaskuntza arloko konpetentzia banaketa, eta indarrean dagoen hezkuntza sistema espaniarra arauten duen legislazioa: Konstituzioa, Autonomia Estatutoak, LODE, LOGSE, Eskola Publikoari buruzko Legea, Euskararen oinarrizko Legea, hamaika erret dekretu, e.a.

- Aldagai Soziopolitikoa.

Nahiko zabala, orokorra eta anbiguoa da. Hezkuntza sisteman eragina duten erakunde, mugimendu eta giza-eztabaidak aztertzen dira: ikastegien autonomia/kontrola, hezkuntza-komunitatearen boterea, eskola publiko-pribatuaren arteko eztabaida, Estatuaren eta kapitalaren eragina eskolan, irakaskuntzaren kalitatea,...

AZPISISTEMAK.

Behin ingurunearen bitartez dagoen eragina ikusi ondoren, ikastetxean bertan kokatuko dugu gure azterketa. Eskola Erakuntza blokean ikusiko da. Ikastegi bat, eta elkarren menderapenean 4 azpisistemaz osoturik dagoela esan daiteke:

- Azpisistema Egiturala.

Eskolaren egitura osotzen duten elementu formalez (arautuak edo santzionatuak daudenak) arduratzen da. Ondoko arlo hauetan sakonduko da:

- Eraketa moetak.
- Zuzendaritza
- Ikaslegoaren eta irakaslegoaren antolaketa.

- Azpisistema Psikosoziala.

Egitura formalarekiko definituko dugu. Arlo honek ikastegi batetako partaideen arteko erlazioa eta integrakuntza mailaz dihardu; egitura formalaren aurrean, asoziazio eta harreman informalak (aintzindaritza, komunikazioa, morala, gatazkak,...) kontutan hartzen ditu. Azpisistema honek baldintzatzen du partaideek erakundeekiko izan ditzaketen jarrerak eta jokaera.

- Azpisistema Teknikoa.

Eskola batetako irakasleek duten prestaketa zientifikoaz, edo eta partaideek erabiltzen duten ezagumendu tekniko eta sozial multzoaz arduratzen da: hezkuntza proiektua, curriculum, metodo eta programazioaz, jokaeraren aldaketaz,...

- Azpisistema Administratiboa.

Eskolako arazo eta iharduera administratibora mugatzen da. Ikasleen paper eta estadilloak, dokumentu ofizialak, baliabide ekonomikoen erabilpena,...

HELBURUAK eta HELMUGAK.

Gizartearen barruan edozein ikastegik funtzio sozial jakinak, agirikoak eta izkutukoak, betetzen ditu. Zertarako dago eskola eta zertarako sortu izan den hezkuntza sistema, sakonean dagoen eztabaida ideologikoa eta politikoa da. III. blokean aztertzeko esparrua dugu hau.

eman ta zabal zazu
universidad del país vasco
euskal herriko unibertsitatea

DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA SAILA

HEZKUNTZA LEGISLAZIOA, ESKOLA ERAKUNTZA ETA HEZKUNTZA SISTEMA.

PROGRAMAREN EDUKIA.

Sarrera: Eredu sistemikoa.

I. Blokea: HEZKUNTZA LEGISLAZIOA

1. Hezkuntza politika.
1.1. Botere publikoaren banaketa.
1.2. Administrazio Publikoa. Definizioa eta hastapenak.
1.3. Hezkuntza politika. Hezkuntza Administrazioaren funtzioak.
1.4. Baskongadeetako Administrazio Autonomikoaren funtzioak.
1.5. Legeen erronka hierarkikoa: maila zentral eta autonomikoa.
1.6. Hezkuntza Administrazioaren egitura. Maila zentral eta periferikoak.
1.7. Espaniako Konstituzioa eta boterearen lurralde banaketa.

2. Estatuaren atribuzioak irakaskuntza arloan.
2.1. Espaniako Konstituzioa.
2.2. LOECE (Ley Orgánica 5/1980 del Estatuto de Centros Escolares).
2.3. LODE (Ley Orgánica 8/1985 del Derecho a la Educación).
2.4. LOGSE (Ley Org. 1/1990 de Ordenación General del Sistema Educativo).

3. Euskal bi Komunitate Autonomoei dagozkien atribuzioak hezkuntza arloan.
3.1. Konstituzioaren 148. artik.: 15, 17 eta 19 puntuak.
3.2. Ley Orgán. 3/1979 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.
- 6. atala: Hizkuntza ofizialez.
- 10. atala: Kultura orokorraz.
- 16. atala: Irakaskuntzaz.
- 2. eta 3. erabaki gehigarriaz.

3.3. R.D. 2808/1980 eta R.D. 3195/1980. Eskualdaketa erret dekretuak.
3.4. Ley Org. 13/1982, Reintegración y Amejoram. del Régimen Foral de Navarra.

4. LOGSE eta ondorengo garapen legala.
4.1. LOGSE legearen atarikoak eta 6 idazpuruak (tituloak).
4.2. 1970. eko Ley General de Educación.
4.3. Oinarrizko hezkuntza orokorra.
4.4. Oinarrizko hezkuntzari buruzko kontzeptu teknikoak.
- Zikloa.
- Gutiengo irakaspenak.
- Erreferentzia oinarrizko mailak.
- Orientabideak.

4.5. Egungo hezkuntza sistema espaniarra.
- Egitura: Haur eta Lehen Hezkuntza, Derrigorrezkoa eta Batxilergoa.
- Ondorengo garapena legala: erret dekretu desberdinak.

5. Euskal Eskola Publikoaren Legea.
5.1. Itun eskolarrerako Hitzarmen politikoa. (EAJ-PSOE-EE, 1992).
5.2. 1/1993 legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
5.3. Autonomiari buruzko hurbilketarako oinarrizko planteamenduak.
- Lege estatalen azterketa.
- Euskal Eskola Publikoaren legean autonomiari buruzko artikulatua.
  - Ikastegien eraketa autonomiaz.
  - Autonomia pedagogikoaz.
  - Gestio autonomiaz.

5.4. Oinarrizko planteamenduak eta aukerakoak:
- Hurbilketa juridiko-politikoa.
- Ikuspegi juridiko-politikoa.
- Ikuspegi tekniko-pedagogikoa.

6. Euskarari buruzko legislazioa.
6.1. Euskararen ofizialtasuna Ipar Euskal Herrian.
6.2. Hego Euskal Herriko lege orokorrak.
6.3. Euskararen erabilpena arauzkotzezko oinarrizko legea.
6.4. Euskara eta irakaskuntza elebiduna.
6.5. EGA eta Irakaslego Eskoletako baliokidetasuna.
6.6. Ley Foral del Vascuence.

1. HEZKUNTZA POLITIKA

1.1. BOTERE PUBLIKOAREN BANAKETA.

Ikuspegi tekniko-juridikopetik, eta Montesquieuren "De l'esprit des Loix" (1748), doktrinaren arabera, botere publikoa honela dago osoturik:(1)

- Legegintz-boterea: oinarrizko lege arautegia produzitzeko erakundea da.
- Botere judiziala: aplikapen judirikorako erakundea.
- Botere beterazlea: exekuzio erakundea da.

- ESTATU ESPANIARRA (Eremu ZENTRALA)
  - PODER EJECUTIVO
    - Presidencia del Gobierno
      - Consejo de Ministros
        - Ministerios ...
        - M.E.C.
          - Dirección Gral. ...
          - D.G.
  - PODER LEGISLATIVO
    - Senado
    - Congreso
  - PODER JUDICIAL
    - Consejo General del Poder Judicial

- ESTATU ESPANIARRA (Baskongadetako Eremu AUTONOMIKOA)
  - BOTERE BETERAZLEA
    - Lehendakaritza
      - Sailak ...
      - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
        - Hezkuntza Sailordetza
        - Unibertsitate eta Ikerketa Sailordetza
  - LEGEGINTZ-BOTEREA
    - Lege Biltzarra
  - BOTERE JUDIZIALA
    - Auzitegi Nagusia

1.5. LEGEEN HERRONKA HIERARKIKOA

Legegintza iharduneraren barne zein lege moeta dagoen eta berauen mailaketa taiutua azalduko dugu. Horretarako, herronka hierarkikoa kontzeptua erabiliz, zera adierazi nahi da: behe mailako arau batek ezin duela goi graduko legerik kontresanean jarri. Hierarkiaren arabera, legeak era desberdinetakoak izan daitezke.

Maila estatalean:

* Konstituzioa: Estatuaren taiuketa politikoa definitzen duen oinarrizko arau multzoa da."Lurralde batetako marko politiko orokorra eta arau antolatzailerik nagusiena da"(12). Gorputz legal honetatik beste lege eta arau guztiak eratortzen dira. 1978.go urrian Espaniako Korteetan onartua, abenduaren 6an eginiko erreferendumean Euskal Herriak errefuxatua eta, 27an Estatuko Buruzagiak izenpetua dago.

* Lege Organikoa: Parlamentuak eztabaidatu eta onartzen duen legea. Estatuko Buruzagiak izenpetzen du. Konstituzioaren 81. artikuluak zehaztu egiten du lege organikoaren egitekoa:


81. ardikulua

1. Askatasun publiko eta oinarrizko eskubideen aurreramenduari dagozkionak, Autonomi Estatutuak onartu eta hautapen orokor errejimena Konstituzioan aurre ikusitako besteak dira lege organikoak.
2. Lege organikoen onartze, aldatze edo baztertzeak proiektu osoari buruzko kongresoaren gehiengo absolutoa exijituko du.

Artículo 81.

1. Son leyes orgánicas las relativas al desarrollo de los derechos fundamentales y de las libertades públicas, las que aprueben los Estatutos de Autonomía y el régimen electoral general y las demás previstas en la Constitución.
2. La aprobación, modificación o derogación de las leyes orgánicas exigirá mayoría absoluta del Congreso, en una votación final sobre el conjunto del proyecto.

Grafikoki honela labur daiteke legeen herronka hierarkikoa:



2. ESTATUAREN ATRIBUZIOAK IRAKASKUNTZA ARLOAN

Administrazio Zentralak irakaskuntza arloan duen konpetentzia Konstituzioaren 27. eta 149.1.30. artikuluetan eta berauetan oinarrituz, garapen legala diren LOECE, LODE eta LOGSE lege organikoetan azaltzen da. Hona arauok banan banan:

2.1. KONSTITUZIOA

Esan bezala, 3 artikulu dugu garrantzitsu:

- 3.art.: Hizkuntza ofizialez diharduena:

3. artikulua

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutoei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntza moeta ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.

Artículo 3.

1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.
3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección.

- 27. art.: Hezkuntzarako eskubideaz

Konstituzioaren II. idazpuruan oinarrizko eskubide eta askatasun publiko orokorren aipamena egiten da, berauen artean, hezkuntzari buruzkoa:

27. artikulua

1. Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna aitortzen da.
2. Hezkuntzak, helburu bezala, giza nortasunaren aurreramendu osoa, bizikidetasun printzipio demokratikoak errespetatuz eta behin betiko eskubide eta askatasunak ero.
3. Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea garantizatuko dute haien semealabek hezikuntza erlijioso eta morala har dezaten beraien uste sendoei dagokien bezalaxe.
4. Oinarrizko irakaskintza behartua eta dohainik da.
5. Botere publikoek hezkuntzarako guztien eskubidea garantizatzen dute, irakaskintzako programaketa orokor baten bitartez, dagozkien sail guztien egiazko parte hartzeaz eta ikastetxeak sortuz.
6. Pertsona fisiko eta juridikoei aitortzen zaie ikastetxeak sortzeko askatasuna printzipio konstituzionaleko konstituzioko oinarriei dagokien begirune barruan.
7. Irakasle, guraso eta, dagokienean, ikasleek parte hartuko dute, legeak ezartzen dituen mugetan; Administrazioak herri ondasunez ordaindutako ikastetxe guztien kontrol eta jestioan.
8. Botere publikoek hezkuntza sistima arakatu eta homologatuko dute legeen betetzea garantiza dadin.
9. Botere publikoek, ikastetxeak legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten lagunduko dituzte.
10. Unibertsitateen autonomia errekonozitzen da legeak ezartzen dituen neurrian.

Artículo 27.

1. Todos tienen el derecho a la educación. Se reconoce la libertad de enseñanza.
2. La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana en el respeto a los principios democráticos de convivencia y a los derechos y libertades fundamentales.
3. Los poderes públicos garantizan el derecho que asiste a los padres para que sus hijos reciban la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.
4. La enseñanza básica es obligatoria y gratuita.
5. Los poderes públicos garantizan el derecho de todos a la educación, mediante una programación general de la enseñanza, con participación efectiva de todos los sectores afectados y la creación de centros docentes.
6. Se reconoce a las personas físicas y jurídicas la libertad de creación de centros docentes, dentro del respeto a los principios constitucionales.
7. Los profesores, los padres y, en su caso, los alumnos intervendrán en el control y gestión de todos los centros sostenidos por la Administración con fondos públicos, en los términos que la ley establezca.
8. Los poderes públicos inspeccionarán y homologarán el sistema educativo para garantizar el cumplimiento de las leyes.
9. Los poderes públicos ayudarán a los centros docentes que reúnan los requisitos que la ley establezca.
10. Se reconoce la autonomía de las Universidades, en los términos que la ley establezca.

- 149. art.: Estatuari baizik ez dagozkion atribuzioez

Bestalde, VIII. idazpuruak Estatu-lurralde eraketaz dihardu, eta Herkidego Autonomoez ari den 3. atalburuan 149. atala agertzen da. Berton, Estatuari baizik ez dagokion konpetentzia zerrenda agertzen da. Irakaskuntza arloan, 149.1.30. puntua bereziki:

149. artikulua

1. Estatuari bakarrik dagozkio ondorengo alor hauk:

1.° Edozein espainolek dituen eskubide eta Konstituzioa ematen dizkion egikizuna betetzeko beharrezkoa den egoera arautzea.

9.° Industria eta intelektual jabego legegintza.

13.° Ekonomi eragintza, planglntza orokorraren oinarriak eta koordinaketa.

15.° Zientzia eta Teknik mailako ikerkuntza bultzatzea eta koordinatzea.

18.° Administralgo Publikoaren legegintza oinarriak, eta funtzionarien arautegi errejimena, beti arau hauetan administratu guztiak era berean tratatuz; administral prozedura orokorra, beti Erkidego Autonomoen berezitasunak salbu; nahi eta nahiezko desjabetze legegintza; administral kontzesio eta kontratuei buruzko legegintza eta administral publiko orokorren erantzukizun era.

30.° Akademik edo Profesional mailako titulua eskuratzeko, beharrezko diren baldintza, emate edo onartzeko eraketa eta Konstituzio honen 27. artikulua eratzeko behar diren oinarrizko arauak, botere publikoak alor hontan duen betebeharra bete ahal izateko.

Artículo 149.

1. El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias:

1.° La regulación de las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de los derechos y en el cumplimiento de los deberes constitucionales.

13.° Bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica.

15.° Fomento y coordinación general de la investigación científica y técnica.

18.° Las bases del régimen jurídico de las Administraciones públicas y del régimen estatutario de sus funcionarios que, en todo caso, garantizarán a los administrados un tratamiento común ante ellas; el procedimiento administrativo común, sin perjuicio de las especialidades derivadas de la organización propia de las Comunidades Autónomas; legislación sobre expropiación forzosa; legislación básica sobre contratos y concesiones administrativas y el sistema de responsabilidad de todas las Administraciones públicas.

30.° Regulación de las condiciones de obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales y normas básicas para el desarrollo del artículo 27 de la Constitución a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los poderes públicos en esta materia.

31.° Estadística para fines estatales.

2.2. LOECE (Ley Orgán. 5/1980 del Estatuto de Centros Escolares)

U.C.D. alderdi politikoa Gobernu Zentralean zegoenean ateratako legea la LOECE. Haren 8. artikuluan "Centro público" kontzeptua agertzen da, eta geroztik, 2. erabaki gehigarriak, Konstituzioaren 27. eta 149.1.30. artikuluetan oinarriturik, Estatuari dagozkion atribuzioak plazaratzen ditu:

Artículo 8.°

1. Son centros públicos los que tienen por titular a entes públicos con plena competencia como Administración educativa y aquellos otros entes territoriales a los que aquéllos la transfieran.

2. Son centros privados los que tienen por titular a una institución, entidad o persona pública o privada no incluida en el apartado anterior.

3. Se entiende por titular la persona física o jurídica que como tal conste en el registro a que se refiere el artículo 6.°

DISPOSICION ADICIONAL — BI ERABAKI GEHIGARRIAK:

Uno. Lo dispuesto en esta Ley se entiende sin perjuicio de las competencias reconocidas a las Comunidades Autónomas por sus Estatutos de Autonomía, dentro del respeto a la Constitución y a las Leyes Orgánicas, entre las que se encuentra la presente, que desarrollen el artículo veintisiete de la Constitución. → No existe sistema educativo Vasco.

Dos. En todo caso, y por su propia naturaleza, corresponde al Estado:

a) La ordenación general del sistema educativo.

b) La fijación de las enseñanzas mínimas y la regulación de las demás condiciones para la obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales válidos en todo el territorio español.

c) La alta inspección y demás facultades que conforme al artículo ciento cuarenta y nueve, uno, treinta, de la Constitución le corresponden para garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los poderes públicos.

Tres. Los artículos veintiuno; veinticuatro, apartados dos y tres; veinticinco, tres y cuatro; veintiséis; veintisiete; veintiocho, uno y dos; veintinueve; treinta; treinta y uno, y treinta y siete de esta Ley, sin perjuicio de su carácter general podrán ser modificados o sustituidos por las Comunidades Autónomas en el ámbito de sus facultades y competencias determinadas por sus respectivos Estatutos de Autonomía.

2.5. LABURPENA

Aurreko textu legal horiek ikusita, irakaskuntza arloko Estatuaren atribuzioez honako laburpen bat egitera ausartzen gara. Beste modu batera, LODEren erabaki gehigarri laburrak, begira zenbat atribuzio ezkutatzen duen:

1) Hezkuntza sistema espaniarraren taiuketa:	- Egitura ezartzeko ahalmena: maila, aro, zikloak,... - Batetik bestarako zubiak - Irakaskuntza areak - Irakaslegoaren baldintzak - Eskolartasun aldia - Ikastegien baldintzak - Ikasgelako haur kopurua - ...
2) Irakaskuntzaren programazio orokorra	- Hezkuntzaren beharrizanak - Baliabideak mugatzea - Eskolapostuak finkatzea - ...
3) Gutiengo irakaspenak	- Curriculumaren helburuak - Curriculumaren edukia - Ebaluapen erizpideak - Textuliburuen baldintzak - ...
4) Tituloak eskuratzeko,luzatzeko eta baliokidetzeko baldintzak	- Ikasketa planak - Asignatura tronkalak - Gutiengo kreditu kopurua - Ezagutza areak - ...
5) Goimailako Inspekzioa: - Ea gutiengo irakaspenak errespetatzen diren - Hezkuntza sistemaren egitura ea bermatzen den - Espainolen aurka diskriminaziorik dagoenentz. - Tituloak lortzeko baldintzak betetzen direnentz - ...	

3. EUSKAL BI KOMUNITATEEI DAGOZKIEN KONPETENTZIAK

Herkidego Autonomo euskaldun biei dagokien irakaskuntzaren arloko konpetentzia, alde batetik Espaniako Konstituzioan, eta bestetik, Hego Euskal Herriko Komunitate bakoitzak duen Autonomia Lege Organikoan bilatu behar dugu:

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeek osotzen duten Komunitate Autonomoa, hemen Baskongadak deitua.
- Nafarroak, berak bakarrik osotzen duena.

3.1. KONSTITUZIOA

Aipagarrien dugun artikulua 148.a da. Berton, Herkidego Autonomoek duten konpetentzia zerrenda zehazten da. Hemen, irakaskuntzarekin zerikusia dutenak jarri ditugu:

148. artikulua

1. Erkidego Autonomoek har dezaketen konpetentziak alor hontakoak dira:

15.° Erkidego Autonomoarentzat interesdun diren museo, biblioteka eta musika kontserbatorioak.

17.° Kultura eta ikerkuntza bultzatzea eta dagokionean, Erkidego Autonomoaren hizkuntza irakastea.

19.° Kirolgintza bultzatu, eta aisia betegarri egokiak aurkitzeko.

Artículo 148.

1. Las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en las siguientes materias:

15.° Museos, bibliotecas y conservatorios de música de interés para la Comunidad Autónoma.

17.° El fomento de la cultura, de la investigación y, en su caso, de la enseñanza de la lengua de la Comunidad Autónoma.

19.° Promoción del deporte y de la adecuada utilización del ocio.

3.2. BASKONGADAK KOMUNITATE AUTONOMOA. GERNIKAKO ESTATUTOA.

Gernikako Autonomia Estatutoan (Ley Orgánica 3/1979, de Estatuto de autonomía para el País Vasco) hiru artikulu eta bi disposapen iragankor ditugu aipagarri:

- 6. art.: Hizkuntza ofizialei buruzkoa
- 10. art.: Kultura, zentzu zabalean hartuta. EUSKAL KOMUNITATEAREN KONPETENTZIA
- 16. art.: Irakaskuntzarekin bereziki lotua. ESTATU ZENTRALAK + BASKONGADEK

- 6. artikulua: hizkuntza ofizialez

Hizkuntzei buruzko atal honetan gaztelania eta euskararen ofizialkidetasuna aipatzen da. Konpara dezagun artikulu honen lehen puntua eta Konstituzioaren 3. artikuluaren lehen puntuarekin. Gaztelania jakitea halabeharrezkoa da, baina euskara ez da derrigorrez ezagutu eta erabili behar:

6. artikulua

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza seguratzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.

3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.

4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.

5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala —edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko—, horretara euskara zaindu eta bultza dadin.

Artículo 6

1. El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas.

2. Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad socio-lingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento.

3. Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua.

4. La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia es institución consultiva oficial en lo referente al euskera.

5. Por ser el euskera patrimonio de otros territorios vascos y comunidades, además de los vínculos y correspondencia que mantengan las instituciones académicas y culturales, la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá solicitar del Gobierno español que celebre y presente, en su caso, a las Cortes Generales para su autorización los tratados o convenios que permitan el establecimiento de relaciones culturales con los Estados donde se integran o residan aquellos territorios y comunidades, a fin de salvaguardar y fomentar el euskera.

- 10. artikukua: Kultura zentzu zabalean

Kultura zentzu orokorrean harturik eta irakaskuntzarekin duen loturagatik jartzen dugu artikulu hau. Berton Euskal Komunitate honek duen konpetentzia exklusiboaz dihardu:

(Euskal Herriari dagozkion konpetentziak)

10. artikulua

Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagokienean konpetentzia exklusiboa du:

13. Irakaskuntzari, kulturari, arte, ongintza, ardura sozialari eta antzekoei laguntzekó diren Fundazio eta Elkarteak berauek beren funtzioak ia erabat Euskal Herrian betetzen dituztenean.

16. Zientzien eta tekniken ikerpena, Estatuarekin koordinatuki.

17. Kultura, Konstituzioaren 149.2. artikuluan erabakiari kalterik egiteke.

18. Arte Ederrak irakasteko eta berauek bultzatzeko daudekeen Erakundeak. Eskulangintza.

19. Kultur, histori, arte, monumentu, arkeologi eta zientzi ondareak, exportazio eta expoliazioaren kontra, esindako ondare horien alde Estatuak ezarriko dituen arauak eta betharkiak Komunitate Autonomoak bere gain hartuko dituelarik.

20. Artxiboak, Bibliotekak eta Museoak, Estatuak berorien titulartasunik ez duenean.

36. Turismo eta Kirolak. Aisia eta Atsedena.

37. Euskal Herriko Estatistika, beraren helburu eta konpetentzietarako.

38. Ikusgarriak.

39. Komunitatearen aurrerabidea. Emakume kondizioaren arazoa. Haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika

(De las competencias del País Vasco)

Artículo 10

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en las siguientes materias:

13. Fundaciones y Asociaciones de carácter docente, cultural artístico, benéfico, asistencial y similares, en tanto desarrollen principalmente sus funciones en el País Vasco.

16. Investigación científica y técnica en coordinación con el Estado.

17. Cultura, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.2 de la Constitución.

18. Instituciones relacionadas con el fomento y enseñanza de las Bellas Artes. Artesanía.

19. Patrimonio histórico, artístico, monumental, arqueológico y científico, asumiendo la Comunidad Autónoma el cumplimiento de las normas y obligaciones que establezca el Estado para la defensa de dicho patrimonio contra la exportación y la expoliación.

20. Archivos, Bibliotecas y Museos que no sean de titularidad estatal.

36. Turismo y Deporte. Ocio y esparcimiento.

37. Estadística del País Vasco para sus propios fines y competencias.

38. Espectáculos.

39. Desarrollo comunitario. Condición femenina. Política infantil, juvenil y de la tercera edad.

- 16. artikulua: Irakaskuntzaren arloko konpetentzia. Gernikako Estatutoan irakaskuntzarekin bereziki lotua 16. artikulua dugu gailen. Aurreko artikuluaz konparatuz, hemen ez da ezklusibitateaz hitzegiten, esan bezala, arlo hau, Estatu Zentralak eta Baskongadek konpartitzen duten konpetentzia da eta.

16. artikulua

Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluaren eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149.1.30. artikuluak Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egiteke.

Artículo 16

En aplicación de lo dispuesto en la Disposición Adicional primera de la Constitución, es de la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y Leyes Orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30ª de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

Beraz, Gernikako Estatutuaren 16. artikulu honen mugak hauxek dira:

1. Konstituzioaren 27. artikulua
2. Konstituzioaren 27. artikulua garatzen duten Lege Organiko desberdinak. Orain arte, LOECE, LODE eta LOGSE.
3. Konstituzioaren 149.1.30. artikuluaren arabera Estatutuari dagozkion fakultateak, berauen artean, tituloak eskuratzeko baldintzen arauketa.
4. Goi Inspekzioa.

- Agindu iragankorrak.

